

Liburuak euskaraz katalogatzeko arauak izango dituzte liburutegiek

Euskal Planaren barruan sortu dute 'Katalogazio Arauak', Gipuzkoa, Araba eta Bizkairako.

Erredakzioa. Bilbo

Liburuak katalogatzeko arauen euskarazko itzulpen eta egokitzapena aurkeztu zuten zenbait ordezkari atzo Bilbon prentsaren aurrean. EAEko liburutegiek eskura izango dute hemendik aurrera liburuak euskaraz katalogatzeko arautegi berria. Katalogazio Arauak Kulturaren Euskal Planaren barnean sortu dute; eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako elkarte eta liburutegi esanguratsuenek parte hartu dute proiektuan.

Euskal liburutegietako profesional eta erabiltzaileen aspaldiko eskabideari irtenbidea eman nahi izan dio argitalpenak. Liburutegietan aspalditik zuten euskarazko baliabideen gabezia. Batez ere, dokumentuak euskaraz katalogatzeko eta nazioarteko arauetan zegoen hutsunea. Gainera, zailtasun nabarmenak zituzten liburutegietako langileek katalogo bibliografikoak euskaraz kontsultatu ahal izateko. Horri irtenbidea ematea du helburu euskarazko katalogo berriak. Katalogazio arauak funtsezkoak bilakatu dira katalogo bibliografikoen normalizazioa lortzeko eta prozesu teknikoek kudeaketarako. Garrantzi handia baitute informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko orduan.

Sei urtetako lanaren emaitza

Kulturaren Euskal Plana martxan jarri zenetik, 260 lagunek lan egin dute bertan 13 taldetan banaturik. Katalogo berriaren proiektua 2002. urtean hasi zuten, orduan elkartu baitziren Kultura Saileko arduradunak, eta EAEko liburutegietako erakundeak, elkarteak, liburutegi esanguratsuenak eta IVAP. Hasieratik argi ikusi zuten Espainiako Kultura Ministerioaren arauen itzulpen soila ez zela nahikoa, eta zenbaitetan beharrezkoa zela euskarazko beharretara egokitzea. Sortutako arauak zaharkituak gera daitezke, baina terminologian, deskribapen fisikoetan eta oharren eremuetan euskaraz katalogatzeko zegoen arazoa bete dute.

Liburutegi politika diseinatzea eta bideratzea erakunde publikoen eginbeharra da. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren egitekoen artean liburutegien alorrean, euskararen erabilera normalizatzeko zer egin behar den ikertzea eta zehaztea ere sartzen da. Bibliotekonomia bildumako bigarren argitalpena da Katalogazio Arauak. Aurrez, beste argitalpen bat kaleratu zuten; musikako liburuen, partituren eta soinu grabazioen sailkapen sistematikoa izan zen hura.